



BARREN
TOKIKOM



Kukulaisi, euskarazko aisialdi taldeen sarea

EXPRESS ESKAINTZAK!

SIEMENS WT47G439ES ARROPA-LEHORGAILUA

659 €

- A+++ energia-mota.
- 8 kg-ko karga.
- Bero-ponpa.
- Kondentsadore autogarbigarria.
- 35 min-ra arteko lehortze denbora.
- 40 min-ko programa azkarra.
- "Outdoor" jantziatarako eta mikrozuntzezko ehunetarako programa berezia.
- SoftDry danborra; leuna eta delikatua zure arroparekin.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.




STOCK KALE AZOKAN

%30 %50

Deskontuak denboraldiz kanpo eta katalogoz kanpo dauden produktuetan.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko eta
MENDARko
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en
eta egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ Portu, ubide era bideetako ingeniaria

Jolasean ibili zara udan?

dira jolasaren bidez. Ume ez gare-nontzat ere primerakoa delakoan nago. Udan hala ibili naiz semeekin: ping-pongean, Pirritx eta Porrotxen kartetan, hondarretan gazteluak egiten... Ezer egin gabe egon naizenean ere ederki pasatu dut. Indarrak ganoraz hartu ditut datorren kurtsu berrirako. Opor denbora behar bezala "aprobatzen" nuen edo ez kontuan hartu gabe. Oporrek kurtsu berrirako, haurtzaroak bizitzarako besteko pisua daukatela esango nuke.

Urte osoan zehar ere gure kaleetan eta plazetan jolastu eta ondo pasatzea garrantzitsua dela diote hezkuntzan adituek. Izan ere, ludikotasunak pisu handia du gure bizitza emozionalean. Ez bakarrik oporretan.

Bartzelonan adibidez, 12 eskola publikotan patioak eraldatzen dabil Hezkuntza Partzuergoa. Patiook zementuzko harlauza izateari utzi eta leku berdeagoa, egurrezko oholtza eta jolasteko aukera ugari dituen izatea dute helburu. Elkarlanean, administrazioak, irakasleek, ikasleek, familiek eta kirol aisialdi elkarteek diseinatu dituzte. Patioak eraberritzen diren heinean, auzo-ekipamendu gisa erabiliko dira.

Egun halako lanetan dabil Mendaron ere Arno Guraso Elkarteak, ikastola ingurua eta patioa eraldatu nahian. Ikastolako zuzendaritza eta alkatetza bera endredatu ei dituzte intentzio horretan. Ahalegintzea bera ere ez da lan makala!



Plaza Txikian ikasi nuen nik bizikletan. Bertan ibiltzen ginen harrapaketan, kaniketan lokatz artean eta baita kuxkuxero lanetan hango tailer zaharretan, herdoildutako porlanean, zabor eta xiringa artean behin baino gehiagotan. Jolastu, jolastu ere asko egiten nuen ikastolan. Ubitarten ere, Goxotoki Mari Jose eta Lopezeko litxarreriak jaten ordu on pila pasata nago. Elgoibarko txokoetan haurtzaro zorionsua pasatua naiz ni.

Funtsezko hezkuntza balioak eta ereduak ikasi eta barneratzen omen

"Bartzelonan, 12 eskola publikotan patioak eraldatzen dabil Hezkuntza Partzuergoa. Patiook zementuzko harlauza izateari utzi eta leku berdeagoa izatea dute helburu"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Pedro Mugurutza kaleari izena aldatzeko parte-hartze prozesua hasi du Elgoibarko Udalak

Eusko Jaurlaritzaren memoria demokratikoaren inguruan idazten ari den legearekin bat eginez, Elgoibarko Udalak hasi du Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatzeko parte-hartze prozesua. 1936ko altxamenduari edo erregimen frankistari lotutako "erreferentzia oro" ezabatzea eta prozesu hori herritarrek "era partekatuan" gauzatzea dela helburua azaldu dute Elgoibarko Udaletik. Dagoeneko zabalik dago proposamenak jasotzeko epea, eta Elgoibarren erroldatutako 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte. Izen proposamenak printzipio hauek errespetatu beharko ditu: genero-berdintasuna, ekitatea, eta ez izatea gaitzesgarria, komikoa edo



nahasgarria. Nomenklatura guztiak argumentazio bat beharko dute. Proposamen guztiak aztertuko ditu bizikidetzak mahaiak, eta ondoren, kale-izendegian parte hartzeko baldintzak betetzen dituztenak sailkatuko ditu. Azken hitza, ordea, elgoibartarrek izango dute eta

beren boto bitartez erabakiko da etorbidearen izen berria.

Izen proposamenak Arreta Bulegoan, www.elgoibar.eus-en edota etxeko buzoietara bidalitako esku-orriko QR Kodearen bidez egin ahal izango dira, urriaren 15era bitartean.



Osasun arloko murrizketen kontrako elkarretaratzea egin dute

Gaugeroa Duintasuna taldeak deituta, osasun arloko murrizketen kontrako elkarretaratzea egin zuten zenbait herritarrek eguaztenean. Anbulatorio aurrean batu ziren, eta besteak beste, erietxea asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabalik egoitea eskatu zuten. Larrialdi zerbitzua berriz martxan jartzeko, aurrez aurreko arreta emateko eta adinekoei musukoak eta botikak doan emateko eskatu zituzten, besteak beste. Azken batean, osasungintza publikoa indartzeko eskaera egin zuten.

Stock kale azoka antolatu du Txankakua elkarteak gaurko eta biharko

Herriko 25 merkatarik parte hartuko dute gaur eta bihar egingo den Stock kale azokan. Jende pilaketak saihesteko, dendariak denda atarrietara aterako dituzte euren produktuak. Goizez, 10:00etatik 13:00etara egingo dute azoka, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara. Egindako erosketa bakoitzeko, bezeroak txartel bat jasoko du eta zozketan parte hartuko du. 600 euro banatuko dituzte saritan guztira (100 euroko sei sari) eta astelehenean jakinaraziko dituzte zenbaki saridunak. Parte hartuko duten dendak honakoak dira. Aranburu bitxi denda, Arauri lurrindegia, Bizkor bizikletak, Casa Astigarraga, Cristina Garcia estetika eta terapia naturalak, Ecenarro lentzeria, Ene Bada, Ikus optika, Fer TT, G & M jantzi denda, Garate jantzi denda, Goiara, Ipintza, Iria moda, Iriondo Kirolak, Karkizano, Lagunak koltxoi denda, Lete, Moma, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika zentroa, Pitxintxu, Sara jantzi denda eta Uzuri optika

%3,3 igoko dituzte udal-tasak 2022an, baina zaborraren tasa mantendu egingo dute



Eguazteneko Osoko Bilkuran onartu zituzten, behin-behinean, 2022rako ordenantza fiskalak, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bildu eta Podemos abstenitu egin ziren. Erabaki horren ondorioz, oro har, %3,3 igoko dira ordenantza fiskalak 2022ko urtarriletik aurrera. Zenbaterako hori zehazteko KPlak abuztuan izan duen emaitza hartu du kontuan Udal Gobernuak. Salbuespen gisa, zabor bilketaren tasa izoztea onartu du Udalak. Era berean, Udalbatzak tarifa berria onartu du auto-taxi zerbitzurako: Gipuzkoako Taxi Elkarteak proposatutako igoera kontuan hartuta, 2022rako igoera % 2,9koa izango da.

'Losers' antzezlanerako sarrerak zozkatuko dituzte Elgoibarkliken klik egiteagatik

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarklikek 2021eko urriaren 22an Elgoibarren estreinatuko duten *Losers* antzezlanerako 2 sarrera bikoitz zozkatuko dituzte, urriaren 1etik 14ra bitartean *Elgoibarklik.eus* plataformaren bitartez herriko dendetan erosketak egiten dituzten 18 urtez gorakoen artean. On-line bidezko erosketak sustatzea da ekimen honen helburua, eta bi modu daude erosketak egiteko: Elgoibarkliken sartuta on-line erosi daiteke edota whatsapp bidez, horretarako aukera eskaintzen duten dendetan. Zozketan parte hartzeko, harremanetarako datuak utzi behar dira (izen-abizenak eta telefono zenbakia) eta erosketak zein saldokitan egin den adierazi Bezeroarentzako arreta atalean, iruzkin bat eginez (www.elgoibarklik.eus/bezeroarentzako-arreta). Zozketa urriaren 15ean egingo dute. Irabazleak zozketa bidez aukeratuko dira, eta irabazleen izenak Elgoibarklik.eus-eko profil sozialen bidez jakinarazi eta zabalduko dituzte.

KONTSULTATEGIA



Hortzetan sarroa izateko joera dut. Badago tratamendu eraginkorrik sarroa tratatzeko?



“Nahiz eta hortzak egunean bizpahiru aldiz eskuilatu, hortzetan sarroa edukitzeko joera dut. Badago tratamendu eraginkorrik sarroa tratatzeko? Eskerrik asko”

Gure hortzetan eta hortzoietan bakterio-plaka metatzeak sarroa eragiten du eta horregatik da hain garrantzitsua plakaren kontrol on bat egitea eta hortzak egoki eskuilatzea. Eskuilatze teknika ondo egiteko Aldaz Hortz Klinikatik zure dentistarekin hitzordua hartzea gomendatzen dizugu, bertan teknikariak zure kasura egokitzen den eskuilatze modua zein den baloratu ahal izateko eta nola egin erakutsi ahal izateko.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
 San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

Elgoibarko Udalak brigadako langileen lan-baldintzak hobetu ezean, urriaren 25ean epaiketa izango dute

Haserre daude brigadako langileak. Peoi batena kobratu eta askoz lan kualifikatuagoak egiten ari direla salatu dute, batzuek, gainera, hogei urte baino gehiagoan. ELAtik jakinarazi dute duela urtebete inguru hasi zutela egoera hori konpontzeko azken saiakera, baina Udalak ez diela kasurik egin. Gogorarazi dute azken bi urteak bereziak izan direla eta Espainiako Gobernuak etxealdira behartu gintuenean, brigadako langileak "langile esentzialak" izan zirela eta baldintza gogor haietan ahal zuten lanik onena egiten saiatu zirela. "Momentu hartan beste langile publiko asko bezala, Elgoibarrek zituen beharrei aurre egiten eta zerbitzu publikoa ematen saiatu ziren; herriko zerbitzuaz, adinekoen egoitzetako konponketak eta bestelako urgentziekin beti bezala arduratuz". ELAtik diote Udalak berak ere sekula ez duela ukatu brigadako langileek arrazoiak dutela: "Egindako bilera guztietan Udalaren aldetik inork ez du esan langile hauek arrazoiak ez dutenik. Udalak egindako txostenetan ere argi azaltzen da arazo honen onarpena". Horren harira esan dute inguruko udaletako brigadetako langileen baldintzak Elgoibarkoenak baino hobek direla. Udalaren jokaerari "ulertezina" iritzi dio ELAk, eta luzamendutan aritzea egotzi dio. Aipatu dute abuz-



tuan batzar batera deitu zituela lan ikuskaritzak, eta ikuskariak, langileen alde egiteaz gainera, arazoa konpontzeko eskatu ziola Ane Beitia alkateari.

Sindikatuak nabarmendu dute urriaren 25ean izango dela epaiketa, "aurrez Udalak konponbidea ematen ez badu". "Lotsagarria da egoera bera eta langileak honaino ailegatu behar izatea". Nabarmendu dute mobilizazioak egingo dituztela, harik eta langileen lan baldintzak hobetu arte. Zapatuan pankarta eskegi zuten King Kongeko zubian.

EHBilduk babesu agertu die langileei

Gai honen harira, EHBildutik kezka agertu dute, prentsa-ohar bidez. Salatu dutenez urtebete da pertsonal bururik

gabe daudela Udalean. "Aurten jakin dugu brigadako langileak oso haserre daudela Udalarekin eta salaketa jarri dutela epaitegian beren lanpostuen xehetasunak Lanpostuen Zerrendan jasotzen ez direlako". Prentsa-oharrean jaso dute irailan jakin zutela oraindik brigadarekin bilerarik ez dela egin. "Brigadak jarritako salaketaren harira, hasiera batean irailak 13rako deitua zegoen epaiketa, arrazoi ezberdinengatik atzeratu egin da, eta oso larria iruditzen zaigu langileek Udala epaitegira eraman izana, eta Udalean ordezkariak daukagun eta gobernuan ez gauden alderdiok ezer ez jakitea, langileek beraiek esan arte". Bildutik "babes osoa" agertu diote Elgoibarko brigadako langileei.

Zumaiara irteera eta gimnasia mentaleko ikastaroa antolatu dituzte Jubilatuen Biltokioek

Urriaren 11rako antolatu dute txangoa. Zumaiako flyscha ikusiko dute, lurretik eta itsasoz. Ondoren, 14:30ean, Zumaiako jubilatuen taberna bazkalduko dute (Beheko plazan). Txangora joan nahi duten bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 35 euro. Elgoibartik Zumairako joan-etorria trenaz egingo dute. 8:20ko tren hartuko dute Elgoibarren, eta ordurako iristea eskatu dute, trenak ez duela itxaroten ohartarazita. Bestalde, eta urtero bezala, gimnasia mentaleko ikastaroa ere antolatu dute bazkideentzat. Asteaz ordubeteko ikastaroa izango da eta hiru talde osatuko dituzte: martitzenetan, 15:30etik 16:30era; eta eguenetan, 15:30etik 16:30era lehenengo taldea eta 16:45etik 17:45era bestea. Lehenengo saioak urriaren 5ean eta 7an izango dira. Hala ere, eta jendea animatzeko asmoz, atek irekitzeko egun bat ere antolatu dute urriaren 6rako (17:00etan), Jubilatuen Biltokian. Gela ezagutu eta ikastaroan zer eta nola lantzen duten ikusteko aukera izango dute gerturatzen direnek. Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 690 795 825.

Alkorta, Sahatsu eta Belortzairako baserri bideak konpondu dituzte Mendaron

Alkorta, Sahatsu eta Belortzairako baserri bideak konpontzeko 94.000 eurotik gorako inbertsioa egin du Mendaroko Udalak. Ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioa ere jaso du. Alkortara bidean, zorua behera eginda zegoen eta asfaltozko partxeak jarri dituzte zorua berdintzeko. Bi pasabide kanadiar ere kendu dituzte eta zortzi zabalgunegun egokitu dituzte, kotxeak gurutzatzeko lekua egon dadin. Probisa vias y obras enpresak egin ditu lan horiek eta inbertsioa 37.474,46 eurokoa izan da. Sahatsu bidean, berriz, zoladura konpondu eta arekak eta kunetak ere garbitu dituzte. Excavaciones y obras Diego SL enpresa ari da lan horietan eta 49.179,97 euroko inbertsioa aurreikusten da. Belortzairako bidean, ostera, euri urak jaso eta errekarra bideratzeko lanak egin dituzte. Euri urek luperiak eragiten zituzten, eta beraz, hodi batean jaso dituzte eta Iturrondo baserriko lursailetan zehar Goikola errekarra bideratu dituzte. Bergaretxe enpresak egin ditu lan horiek eta 7.706 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua izan dute.



Publifestival sarietan Publizitate Kanpaina Original Onenaren saria jaso dute Mankomunitateak eta Adakik



Gaikako bilketa sustatzeko kanpaina berezia egin zuten Debabarrenako Mankomunitateak eta Adaki Komunikazio agentziak Eguberrietan, Gabonetako pertsonaiak erabilia. Eta hain justu ere, kanpaina horregatik jaso dute orain Publizitate Kanpaina Original Onenaren saria Publifestival jaialdian. Mankomunitatetik jakinarazi dute, urte erdian, eskualdean gaikako bilketak %2 egin duela gora.

Gizarte eta laneratze prestakuntza programetan izena emateko epea, zabalik

Lau prestakuntza saio antolatu ditu Debegesak: bi, lanegian daudenentzat, eta beste bi, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden emakumeentzat. Izena emateko epea zabalik dago eta urriaren 6a izango da azken eguna. Horretarako, Debegesaren webgunean esegi duten formularioa bete behar da. Eskolak urritik martxora bitartean izango dira, eta beka-sistema ezarriko dute, formakuntzara joateak kosturik izan ez dezan. Horretaz gain, parte hartzen dutenei prestakuntzara joateko oinarritzko gastuak ere ordainduko dizkiete. Behin eskolak amaituta, parte hartzaileek praktikak egingo dituzte enpresetan.

Langabezia daudenei zuzendutako bi ikastaroak honakoak dira: *Elektrodo estalia eta TIG bidezko soldadura* (Eibarko Armeria Eskolan) eta *Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak* (Elgoibarko IMHn). Bazterketa egoeran dauden emakumeentzakoak, berriz, honako beste bi hauek izango dira: *Ibilgailuen pintura* (Elgoibarko Meka Lanbide Eskolan) eta *Argiaren eta estalki teknikoak oinarritzko eraikuntzak* (Eibarko Oinarritzko Prestakuntza Profesionalerako zentroan). Informazio gehiagorako: 943 820 110.

Egoitzetan egonaldiak egiteko eskaerak aurkezteko azken egunak

Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute zabalik dagoela aurtengo urrian eta azaroan adinekoen egoitzetan egonaldiak egiteko eskaerak aurkezteko epea. Sei gau baino gehiagoko egonaldiak izango dira, eta hamabost egun baino ezingo dira eskatu. Gipuzkoako Foru Aldundiak Ongizate Sailarekin batera bultzatzen duen programa da.



Kukulaisi: euskarazko aisialdia artikulatu eta garatzeko topagunea

Kukulaisi euskaltzaleen topagunea federazioa eratu zuten zapatuan Elgoibarren. Musika eskolan egin zuten eratze bilkura, eta bertan izan ziren Euskal Herriko aisialdi taldeetako arduradunak, tartean, Elgoibarko Atxutxiamaikakoak. Euskaltzaleen Topagunean biltzen diren eta aisialdia lantzen duten euskara elkarteek egindako hausnarketaren emaitza izan da Kukulaisiren sorrera, tokian-tokian euskarazko aisialdia lantzen duten egitasmoak artikulatu eta garatzeko.

- AINHOA ANDONEGI -

Hamalau euskara elkarte batu dira Kukulaisi federaziora, tartean, Elgoibarko Izarra. Lehendik ere euskarazko aisialdi egitasmo sendoak dituzten elkarteak dira guztiak, eta horiez gain, Euskaltzaleen Topagunea eta Kultur Kabia aisialdiko zerbitzu enpresak ere parte hartu dute Kukulaisi federazioaren eraketan. Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean egin zuten eratze batzarra zapatuan, eta bertan batu ziren euskara elkarteetako aisialdi taldeetako arduradunak. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeko arduradun Naiara Martinek egin zien ongi-etorria guztiei, eta erditze batekin alderatu zuen zapatuko ekitaldia: "Kukulaisiren erditzea izan da gaurkoa, hemendik aurrera umea hazteko prozesua hasiko da", esan zuen. Jarraian, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari Kike Amonarrizek, Kukulaisi federazio berria gidatuko duen zuzendaritza taldekoek eta zuzendariak berak

hartu zuten hitza. Federazioa eratuta, lehen hilabeteetan, orain arteko gogoetatik irtendako asmoak egitasmo zehatzetan gauzatzeari ekingo diotela zehaztu zuten.

FEDERAZIO IREKIA

Federazioaren sorreran euskara elkarten mugimenduko elkarte eta eragileak batu badira ere, euskarazko aisialdia garatzen dituzten bestelako elkartei ere zabalik dagoela azpimarratu dute Kukulaisiko ordezkariak. Era berean, lehen eratze batzarrean Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako elkarteek parte hartu badute ere, federazioa Euskal Herri osoko eragileak biltzeko sortu dela nabarmendu dute.

AISIALDIAREN GARRANTZIA EUSKARAREN GARAPENEAN

Eratze batzarren hitzartzeetan euskarazko aisialdiak hizkun-

tzaren garapenean duen garrantziaz jardun ziren gonbidatuak. Hezkuntza formalak duen funtsezko papera ahaztu gabe, aisialdia adin guztietako pertsonen sozializazioan ezinbesteko elementua dela eta hizkuntzaren normalizazioan ere ekarpen handia egiten duela nabarmendu zuten. Horregatik, aisialdi arloan egiten diren proiektu askotarikoen artikulaziorako eta garapenerako tresna modura aurkeztu zuten federazio berria. Azkenik, sektore artikulatu batek bere eragina biderkatu dezakeela nabarmendu zuten.

GOGOETAREN EMAITZA

Aisialdi eremua lantzen duten euskara elkarteetako kideek Euskaltzaleen Topagunea sortu zenetik aisialdi batzordean batzen badira ere, urte asko dira arloaren artikulazioan sakondu beharra ikusi zutela, eta pandemiak behar hori areagotu egin duela esan zuten batzarrean. Horren eraginez, azken hilabeteak federazio berria gorpuzteko "emankorrak" izan direla nabarmendu zuten.

14 aisialdi talde batean

Usurbilgo Noaua! euskara elkarte
 Getxoko Bizarra Lepoan euskara elkarte
 Hernaniko Dobera euskara elkarte
 Euskarabentura elkarte
 Gasteizko Geu elkarte
 Ordiziako Hitzaro euskara elkarte
 Bergarako Jardun euskara elkarte
 Atarrabiako Karrikaluze euskaldunon elkarte
 Lasarte-Oriako Ttakun kultur elkarte
 Arrasateko Txatxilipurdi elkarte
 Deustuko Berbaizu euskara elkarte
 Durangoko Berbaro euskara elkarte
 Soralezeko Pil Pilean euskara elkarte
 Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea



NAIARA MARTIN, Atxutxiamaikako arduraduna

“Gure lana euskaltzaletasuna sustatzea izan behar da, aisialdia euskaraz eskaintzea baino gehiago”

◆ Zerk bultzatu zaituzte Kukulaisi sortzera?

Topaguneak abiatu zuen parte-hartze prozesua, ikusten genuelako aisialdi talde guztiek behar berberak genituela. Indargune eta makalguneak aztertu genituen, eta ikusi genuen denok batuta eraginkorragoak izango ginela. Diskurtso bateratu bat sortzeko beharra ere bazegoen, denok norabide berean lan egiteko. Gure balio erantsia dagoeneko ez da aisialdia euskaraz eskaintzea, hori bermatuta dagoela esan daiteke. Gure lana euskaltzaletasuna sustatzea izan behar da, aisialdia euskaraz eskaintzea baino gehiago.

◆ Zein da Kukulaisiren egitekoa?

Sektorea indartzea bereziki, eta

aisialdi talderik ez dagoen herrietan, taldeak sortzen laguntzea. Azken batean aisia euskalduna eta euskaltzalea hedatzea izango da egiteko nagusia.

◆ Atxutxiamaikari zertan lagunduko dio Kukulaisik?

Hazteko eta garatzeko bidea ekarriko digula iruditzen zait. Ni izatetik gu izatera pasatuko gara, nolabait esateko. Herri mailako ikuspegia galdu gabe, nazional mailako ikuspegi bat izango dugu aurrerantzean. Proiektu eta egoera desberdinak eza-gutzeko aukera ere emango digu, izan ere, ez da berdina Gipuzkoako edo Nafarroako egoera, eta ez dauka zerikusirik bateko eta besteko aisialdi euskaltzalearen egoerak. Besteen esperientzietatik edateko aukera ekarriko digu, formazio bateraturako ateak ere irekiko zaizkigu eta elkarlanean jardutearen onurak ere

iritsiko zaizkigu. Hartu-eman harreman interesgarria sortuko delakoan nago. Lana ere etorriko zaigu, baina herriak irabaziko du, seguru. Kantitatean baino gehiago kalitatean igarriko dugu.

◆ Zein paper betetzen du aisialdiak euskararen garapenean?

Beste eragile bat gehiago da. Familia, eskola eta aisialdia edo denbora librean ditugu. Eremu horien antolaketak zerikusi handia dauka norberaren garapen pertsonalean. Ez da gauza bera yoga egitea edo karate, adibidez. Bizipen positiboekin lotzen badugu gertaera bat, jarduera bat edo hizkuntza bat hori errepikatze joera berez etorriko da. Hor-taz, balioetan oinarritutako aisia bada, euskaltzalea eta euskalduna, bizipen positiboekin lotzea lortu behar dugu umeei errepikatze, eta modu horretan euskarak irabazteko.



▶ JON PELI URIGUEN EH BILDUKO KIDEA

2007an jaso zuen Jon Peli Uriguén (Elgoibar, 1968) politikarako deia Eusko Alkartasunaren eskutik. Ordura arte herrigintzan ibilia zen, besteak beste, Morkaikon eta Elgoibarko Izarran, baina politikan ez zeukan esperientziarik. Baiezkoa eman zien, eta EAko zerrendaburu izan zen urte hartan. 2011n Bildu sortu zuten, eta gerora EH Bildu. 14 urte egin ditu politikan, eta Elgoibarko Udaleko zinegotzi izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua ere izan da. Erreleboa eman dio Aitziber Aranberriri, eta industria mundura itzuliko da bera. Hala ere, EHbidun “laguntzeko prest” jarraituko du, eta Batzar Nagusietako postua ere ez du utziko.

- AINHOA ANDONEGI -

“Politikan aritzeak eman didana kendu didana baino askoz gehiago izan da”

♦ Legealdia bukatu aurretik erabaki duzu kargua lagatzea. Zergatik orain?

Arrazoi nagusia izan da erreleboa ematea eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko taldea martxan jartzea. Nik argi neukan ez gaudela politikan betikotzeko, eta gure erronka dela helburu batzuen alde lan egitea tokatzen den lekutik. Legegintzaldi hau hasi zenean, argi neukan alkatetza lortuz gero herritarrekiko nire hitza beteko nuela, baina hori gertatu ezean, gure ahalegina etorkizuneko lan taldea prestatzea izango zela. Erronka horri forma eman diogu, eta unea heldu zait, helburuak beteta eta talde indartsu eta gogotsu bat utzita, albo batera egiteko.

♦ Nola iritsi zinen politikara eta nola zoaz Udala lagata? Hau da, zer espero zenuen aurkitzea politikan eta zer aurkitu duzu?

Gaszteago eta ile gehiagorekin heldu nintzen politikara (kar, kar...). 14 urte ez dira alferrik pasatu, eta gauza asko bizi izan ditut politikan. Eusko Alkartasunatik deitu zidatenean sartu nintzen politikan. Elgoibarko elkarteetan aritua nintzen (Morkaiko eta Elgoibarko Izarra), baina politikan ez neukan esperientziarik, eta erronkari gogotsu heldu nion. Uste dut herri mailako politika jen-

deak probatu beharko lukeen arlo bat dela. Askotan ez da esker onekoa, baina oso aberasgarria da. Ez neukan inongo aurreiritzirik udalean sartu nintzenean, eta, beraz, ez dizut esango espero nuena topatu nuenik, baina, edozein arlotan bezala, gauza onak eta txarrak bizi izan ditut. Denborarekin, gauza onak jartzen ditut txarren aurretik. Politikan askotariko esperientziak izan ditut, baina nagusiki, ezagututako jendearekin oroitu naiz. Pertsona oso konprometitua eta saiatuak topatu ditut, borondate onenarekin lanean dauden politikariak eta langile oso prestatuak eta finak. Uste dut kanpoko zarata guztiak ez duela laguntzen harremanak normaltzen.

♦ 14 urte egin dituzu Elgoibarko Udalean. Zer izan da onena eta txarrena?

Onena, dudarik gabe, herritarren gertutasuna. Herritarren arazoak ezagutzea, beraien beharrei irtenbideak topatzen ahalegintzea, herritarrekin harremana... Eta bidean ikasitako guztia, pilotutako esperientzia, bidean egin ditudan lagunak... Txarrena, tarteka familiari denbora kentzea, gauzatu ezin izan diren egitasmoak... Unerik gazienak, baina, bidean galdutako pertsonak

“Zailtasunak zailtasun, Elgoibar askotarikoagoa utziko dut”

izan dira. Nola ez naiz gogoratuko nire amaz, 2017ko San Bartolome bezperan utzi gintuena. Baina politika mailan egia esan une gazi-gozaok izan arren, agian gogorrena azken bi urteak izan dira. Ikusten duzunean zentzuzko proposamenak egin arren aurrean dagoen eta erabakiak hartzen dituen taldeak beti ezezkoa ematen dizula. Uste dut denok egin behar dugula autokritika eta bakoitzak jakin beharko lukeela zer egin behar duen herritarren beharrei erantzuteko, baina ezin zaio bizkarra eman laguntza eskaintzen duenari. Momentu gaziez hitz egitean ezin dugu pandemia ahaztu. Oraindik gainean daukagun pandemia hasi zenean elkarlanerako prestutasuna eskaini genion EAJri, baina nahiago izan zuten beraiek bakarrik kudeatzea gaia, bilera eta ekimen askotan gu baztertuz. Berdina gertatu zen Kalegoen plazako 4ko eraikina erori zenean, 2019ko ekainaren 28an, legealdia hasi eta berehala.

♦ EAko zinegotzi moduan iritsi zinen Elgoibarko Udalera, eta gerora EHBilduko kide izan zara. Nola bizi izan zenuen prozesu hori?

Naturaltasunez. 2007an Elgoibarko EAtik deitu zidaten zerrendaburu izateko, eta, hasieran nire kezkek eta zalantzak izan banituen ere, baietza eman nuen. Legegintzaldi hartan EAK 3 zinegotzi lortu zituen eta nik euskararen ardura hartu nuen. Benetan plazera izan zen niretzat Elgoibarko udaleko euskararen ardura nire gain hartzea. 2011n Bildu sortu zen, eta, zailtasunak zailtasun, Bilboko Areatzako 2011ko maiatzeko gau magiko hark islatzen du prozesu osoa. Jende askoren ilusioa biltzen zuen proiektua egikaritu zen, pertsona askoren ahalegin itzelaren ondoren, Euskal Herriko ezkerreko eta independentista ziren jatorri ezberdineko pertsonen arteko proiektu zirrarragarria errealitate bilakatu zen, eta indar atzerakoi batzuen ilegalizazio mehatxuen gainetik, herri honek bazeukan proiektu bateratzaile eta aurrerakoia. Bilduren sorrerarekin herri honetan demaseko ilusioa piztu zen, eta ikusten zen aldaketa etor zitekeela. 2011ko Udal Hauteskundeetan Elgoibarren EAjk 7 zinegotzi lortu zituen eta Bilduk beste horrenbeste. Une biziak izan ziren. Egia da PSE-EEK botoa Bilduri emateko aukera planteatu zuela, baina azkenean bere hautagaizta aurkeztu zuen, eta EAjk lortu zuen alkatetza. Hala ere, Gipuzkoan herri askotan aldaketa eman zen, Bildu Aldundira heldu zen... aldaketa posible zela sinetsi genuen. Benetan une pozgarriak izan ziren herri honetan alternantziak ematen duen aberastasuna gauzatzen hasi zelako. Ilusioz beteriko ga-

raia izan zen. Bi aldiz izan naiz alkategai Udalean: EArekin 2007an eta EH Bildurekin 2019an. Prozesu biak oso era ezberdinean, baina ilusio berberaz bizi izan ditut. 2019an alkatetza lortzeko aukera erreala ikusten genituen, eta uste dut oso kanpaina polita izan zela, talde ederra osatu genuela, eta gauzak

beste modu batera egin daitezkeela sinestarazi genuela. Gainera, kontuan izan behar da EH Bildu gorantz doan indar bakarra dela, hauteskunderaz hauteskunde, eta 2019ko Udal eta Foru Hauteskundeetan EH Bilduk Elgoibarren inoiz izan duen boto kopururik handiena lortu zuela.

♦ EA barruko gatazka nola bizi duzu? Zein etorkizun ikusten diozu alderdiari?

Pena handiz bizi dut. Nik alderdiari etorkizun oparoa ikusten diot, beharrezkoa delako EH Bilduren barruan, eta pertsona asko gaudelako lanerako gogoz. Nik EA beti tresna bezala ulertu dut, helburu batzuk lortzeko tresna bezala, eta orain EH Bildu da EAK (eta beste batzuk, noski) erabiltzen duen tresna helburu horiek lortzeko.

♦ Nolako harremana izan duzue Udaleko gainerako alderdiekin?

Harreman pertsonala beti izan da ona beste alderdiekin. Gaur egun EAJ, PSE, Elkarrekin Podemos eta EH Bildu daude Udalean, eta PP egon denean ere harremana oso ona izan da alderdi guztietako ordezkariekin. Beste gauza bat da lanerako harremana. Azken legealdira mugatzen bagara, udal gobernuarekin izan dugun harremana oso eskasa izan da, batez ere EAJrekin, ahalik eta informazio gutxien ematen saiatu direlako, eta horrek gure lana oztopatu duelako. Pena da, baina horrela izan da. Azkenak aipatzeko: udalak dituen arazoak jakiteko, langileekin dauden kontuak adibidez, erregistrora jo behar izan dugu informazio bila, Pedro Muguru-tzako eskolak botatzeko asmoa dagoela udal aldizkarian argitaratu zutelako jakin genuen...



Aitziber Aranberri, Jon Peli Uriguen, Joseba Osoro, Jorge Hernando, Eneritz Azkue, Janire Egaña, Jone Olaizola eta Jon Etxabe. EHBilduko zinegotzi taldea.

◆ **Nola eraman duzu pertsona publiko izatea?**

Ondo. Nere bizitza ez da gehiegi aldatu ezaguna izateagatik. Herriko zinegotzi izateak, batzuetan kalean jendeak gertzea dakar, zerbait kontatu nahi dizuelako, eta hori benetan eskertzen den zerbait da, beti errespetuz gerturatu izan zaizkidalako. Bestela, ez da asko aldatu nire bizitza. Aldundian diputatu izan nintzenean ere, beste batzuk ezagunagoak ziren, eta gu lasai ibiltzen ginen. Ez dut inoiz izan pertsona publiko izatearen sentsazioa.

◆ **Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko diputatua ere izan zinen. Nolako esperientzia izan zen?**

Oso bizia eta aberasgarria. Ardura handiko postua izan arren, lana zintzotasunez egin izanaren sentsazioarekin bukatu nuen. Une gogorak ere izan ziren tartean. Krisi egoera bete-betean sartu ginen Aldundian, Foru Aurrekontuetan % 20ko beherakada egon zen eta doikuntza mingarriak egin behar izan genituen zenbait arlotan, baina elkarlanean gauzak egitea lortu genuen. Berrikuntza arloan enpresa txikietara gerturatu ginen, pertsonen parte-hartzea sustatu genuen enpresen jardunean... Lehen sektorean aldaketak egiten saiatu ginen, beti ere adostasunak bilatu nahian, zeuden erronkei ahalik eta orekatuen heldu nahirik. Aldaketak egitea zaila den arren, aurpegia eman genuen eta gure planteamenduak azaldu genituen. Lau urte horiek izan zituzten gauza txarren artean, adibidez, zenbait *lobbyk* izan zuten jarrera oldarkorra dago, askotan gezurrak erabiliz, gure jarduna zikintzeko.

◆ **Politika kanpotik bizi dugunok gauza asko ez ditugu ulertzen. Zergatik da horren zaila, herritarren onerako bada, alderdiak ados jartzea?**

Egia da interes ezberdinak daudela eta askotan zaila izaten dela interes guzti horiek bateratzea politika zehatzetan. Baina askotan ez da asmatzen mezuan ere. Agintariek gauzak azaltzeko ardura daukate, eta ez egin eta gero soilik, baizik eta egin aurretik ere. Gaur egungo arazo asko aurretik ondo landuta konponduko lirateke. Beste kontu bat da lehia politikoa. Gipuzkoan, eta Elgoibarren ere noski, argi dago, adibidez, bi indar politiko nagusi daudela eta lehiak ez du laguntzen, baina aurrepolitikoak diren gai askotan ados jarri beharko ginateke. Elgoibarrera etorrira, adibidez, Herribusa, Mintxetako berdegunea irekitzea, Altzolan wifia ezartzea, Sigma auzoko hobekuntza beharrak, osasun aldetik zein ekonomikoki pandemiak kaltetutakoen aldeko neurriak... guzti horietan ados jarri beharko ginateke. Uste dut aurrerapausoak eman ditugula eta herritarrak ere ohartu direla beraiek zeresan handia daukatela udal erabakietan. Uste dut herritarrak izan behar direla herri honen protagonista eta udalean dauden arduradun politikoek bide eman behar diote parte-hartze horri. Hor ikusten dut nik etorkizuneko bidea alderdikeriak albo batera utzi eta bidean aurrera egiteko.

“Lasai asko egingo dut albo batera, Elgoibarko erronkei aurre egiteko talde bikaina eratu dugulako”

◆ **Nolako Elgoibar aurkitu zenuen duela eta nolako lagatzen duzu?**

Ukaezina da hobekuntzak egin direla arlo batzuetan eta azpiegitura batzuek egin direla: Aita Agirre (kultur eredu landu gabe egin bada ere), Urazandiko igogailuak, igerileku berriak... baina epe luzerako estrategia faltan bota dut. Zailtasunak zailtasun, Elgoibar askotarikoagoa

utziko dut. Duela 14 urte egoera ekonomikoa hobea zen. Gero etorri zen 2008ko krisia. Gaur egun Debabarrena osoan bezala, garapen jasangarri baten falta igartzen dut. Beste erakunde batzuetatik egiten den apustua nabarmen zentratzen da Donostialdean, eta horrek desoreka handituko du. Erronka ekonomikoak handiak dira eta denen beharra izango da. Euskararen mailan ere, herri euskaldunagoa utziko nuen esperantzaz nengoen, baina erabilera okerrera egin dugu, eta gaur egun gazteek dauzkaten aisialdi eskaintza gehienak (Internet eta sareen erabilera horrenbeste orokortu den garai hauetan) erdaretan dira (nagusiki gazte-leraz). Lan asko dago egiteko. Bidegurutzean gaude. Bestalde, herri aktiboago bat utziko dudana esperantzaz nago. Uste dut herritarrak ohartu direla beraiek ere asko daukatela esateko udal politiketan (hor daude tabernariak egindako eskaerak, auzo elkarteak... EH Bildu azken bi urte hauetan kolektibo eta norbanako askorengana gerturatu da, eta asko eskertu digute gerturatze hori). Espero dut etorkizunean herria aktibatze balioko duela.

◆ **Zer geratu zaizu egiteko zure ibilbide politikoan?**

Herriko alkate izatea (kar, kar...). Ez, serio. Hori ez da helburu bere horretan, baina gure asmoak erakusteko eta esaten duguna egiten dugula ikusteko aukera emango liguke. EH Bilduk agintzen duen beste herri batzuetan ikusi da egiteko modu ezberdina daukagula, jendearekin batera, elkarlanean. Hori izan da egin ezin izan dudana, baina laster etorriko da.

◆ **14 urte atzera egingo bazenu, erabaki bera hartuko zenuke?**

Bai, zalantzarik gabe. Politikan aritzeak eman didana kendu didana baino askoz gehiago izan da. Benetan gomendatzen diot gauzak aldatzeko gogoia daukan edonori udal dinamikan lan egiteko pausoa eman dezala.

◆ **Aitziber Aranberrik hartuko du zure lekua eta Jone Olaizola sartuko da zinegotzi. Nola ikusten duzu koalizioa?**

Oso indartsu. Aitziberrek erakutsi dit elkarrekin lan egin dugun 2 urte hauetan zeintzuk diren bere gaitasunak, eta pertsonalki nola inplikatzeko den egiten duen lanean. Aitziber alkate bikaina izango da hurrengo legealdirako, aurkeztea erabakiko balu eta EH Bilduk hala nahi izanez gero. Jone ere gogotsu ikusten dut. Eta garrantzitsuena, talde osoa dago ilusioz, lanerako prest, Aitziberri babesa emateko behar duen guztian. Badakite alboan izango nautela nahi dutenerako, proiektu honetan sinesten dudalako, baina lasai asko egingo dut albo batera, talde bikaina eratu dugulako Elgoibarko erronkei aurrez aurre egiteko.

► MARI MAR JIMENEZ

PSIKOLOGOA ETA
GIZARTE HEZITZAILEA

Gizabanakoan, taldeen eta komunitatearen beraren behar sozialei erantzuteko gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze zerbitzuak diseinatzen eta kudeatzen ditu Kalelka irabazi asmorik gabeko elkarteak. 2001. urtean sortu zuten Gipuzkoan, eta beraz, hogeitau urte baino gehiagoko eskarmentua du. 11 urtez gorakoekin lan egiten dute; babesgabetasun egoeran dauden haur, nerabe eta gazteekin, bai eta bazterketa egoeran dauden helduekin ere. Kale hezitzaileen lanaz eta haien egiteko moduez galdetu diogu idatziz Mari Mar Jimenez psikologo eta gizarte hezitzaileari, baita pandemiak utzi dituen ondorioez ere.

- AINARA ARGOITIA -



◆ Zer harreman du Kalelkek Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailarekin edo gizarte zerbitzuekin?

Elgoibarren, 2014. urtean jarri zuten martxan arrisku eta bazterketa egoeran dauden gazteei zuzendutako gizarteratze-prozesuak detektatzeko eta sortzeko esperientzia pilotua. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentutik eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen gizarteratzean eta arretan esku hartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzutik bultzatu zuten. Programa horrek hainbat esperientzia arrakastatsu ekarri zituen, bai gizarte eta hezkuntza laguntzari eta prestakuntza-dukien garapenari lotutakoak, bai lankidetzaz-areak eta koordinazio-guneak sortzearekin lotutakoak. Debegesak eta IMHK lagundu zuten hasiera batean. 2017an etorri zen gero herriko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzu berria, eta gaur egun bi zerbitzu daude martxan: batetik, ingurune irekian esku hartzeko programa,

“Berreskuratu behar dugu kalea, hezkuntza-espazio eta harremantzeko espazio gisa”

haur, nerabe eta gazteentzako dena, eta bestetik, bazterketa arriskuan dauden helduei laguntzeko. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen dituzte biak.

◆ Zein da kale hezitzaileen zeregina? Zer balio lantzen ditu kale-hezkuntzako programa batek?

Ingurune irekian hezteko Programaren funtzio nagusia zera da: adingabeen arrisku-egoerak edo babesgabetasun egoerak prebenitzea, hautematea eta esku hartzea, bai eta helduen bazterketa egoerak antzematea ere. Beren harreman-eremuak aztertzen dira, integrazioa lantzeko ingu-

“Zailtasun-egoera gehiago detektatzen dira gizonezkoetan, beren jokaerak agerikoagoak direlako”

rune guztietan: familia, eskola eta lan-arloa, aisialdia eta denbora libre.

♦ **Zein adinetako jendearekin egiten dute lan hezitzaileek? Generoaren ikuspegitik ba al dago alderik erabiltzaileen artean?**

Ingurune irekiko programan haur, nerabe eta gazteekin lan egiten dugu, 11 eta 18 urte bitartekoekin. Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden helduei laguntzeko programan, berriz, helduekin, adin mugarik gabe. Generoaren ikuspegitik esan behar dugu oraindik ere zailtasun egoera gehiago detektatzen direla gizonezkoetan emakumezkoetan baino, beren espazio ohikoena kalea delako eta ondorioz beren jokaerak agerikoagoak direlako. Hala ere, azken urteetan murriztuz doa alde hori. Neska eta emakumeen kasuan ez da hain erraza zailtasun egoerak antzematea, ez direlako horren agerikoak, eta beraz, beste estrategia batzuk landu behar dira egoera horiek antzemateko eta ondoren esku hartzeko.

♦ **Zein da Elgoibarko egoera soziala? Zeintzuk premia dituzte gazteek?**

Osasun-alarma eragina izan du eta aldatu du Elgoibarko errealitatea, baina hori albora lagaz gero, esango nuke hemengo errealitatea ez dela oso ezberdina eskualdeko gainerako udalerrietakoarekin alderatuta. Nor izatearekin edo ahalduntzearekin eta gizarte-garapenerako gaitasunak eskuratzekoarekin lotutako helburuak lantzen ditugu bereziki. Maila pertsonaleko beharrak, harremanetako zailtasunak eta egiturazko premiak dituzte gazteek.

♦ **Zein da kale hezitzaileen lan dinamika: non eragiten dute, kuadrilletan?**

Beharrak detektatu, baloratu eta esku hartzeko prozesuak proposatzea da haien lana, eta bakarka nahiz taldean lan egiten dute behar horiek lantzeko.

Hezkuntza-laguntzaren eta tutoretzaren bidez lantzen dute bakarka, baina pertsona horren lagun-taldean edota adinkideekin ere egiten dute lan. Kontua ez da bakarrrik pertsonarekin esku hartzea, baizik eta ahalik eta esparru normalizatuen erantzutea, lagun-taldean, horretarako dauden beste baliabide eta sistemekin. Integrazio egoki baterako, pertsonak garatzen diren testuinguruetara egokitu behar dira, eta, aldi berean, testuinguruak ere egokitu behar dira pertsonara.

♦ **Hezitzaileen figura lagunaren eta tutorearen arteko zerbait bezala irudikatzen dugu. Nolako izaten da gazteen eta hezitzaileen arteko ezagutza-prozesua? Nola egiten da lan?**

Denbora eta katea egotea eskatzen du lan honek. Harreman puntualak izaten dira hasieran, hurbiltze ahaleginak... Normala den moduan, mesfidantza izaten da hasieran, eta dinamika bat zehaztu behar izaten da topaketetarako. Konfiantza giroa sortu behar da eta horretarako ezinbestekoa da katea egotea, pazientzia izatea eta behar denean elkartzeko prestutasuna agertzea, baita batzuetan tematia izatea ere. Baina sekula ez da epaitu behar, ez eta inor deabrutu behar edo eta heldu baten irizpidea ezartzen saiatu behar. Hezitzaileak lortu behar du erreferentziatzeko norbait izatea beste lagun horrentzat eta horretarako haren konfiantza irabazi behar du. Behin konfiantza giro hori lortuta, hezitzaileak baliabideak emango dizkio, besteak bere kabuz egin ditzan aldaketak eta bere kabuz gaindi ditzan zailtasunak.

Gazteak harremanetako diren espazioetan lan egiten dute hezitzaileek

(kalea, eskola...) ahalik eta modu naturalenean. Hezitzaileen lan-tresna nagusia hezkuntza-harremana da. Harreman hori oinarritzeko eta funtsezko elementua da pertsonarekin hezkuntza-prozesuak garatzeko eta esku-hartze prozesuan ezarritako helburuak lortzeko.

♦ **Kaleko hezitzaile baten eginkizuna babesgabetasun-egoeran edo bazterketa arriskuan dauden pertsonarekin lan egitea da, baina nola identifikatzen dituzte arrisku egoerak? Zein egoeratan esku hartzen dute? Zein dira egoerarik ohikoena?**

Gizarte Zerbitzuetatik deribatutako kasuak eta erabiltzaileekiko behaketaren eta harremanen bidez hezitzaile taldeak detektatzen dituzten kasuetan, zailtasun-adierazleak erabiltzen dira, jokabide jakin batzuk objetibatu eta landu beharreko premiak zeintzuk diren zerrendatzeko. Zailtasunak askotarikoak dira, eta hiru multzotan banatzen dira: zailtasun pertsonalak, harremanetako zailtasunak eta antolatutako zailtasunak. Era berean, Gizarte Zerbitzuetatik deribatutako kasuak ere aztertzen dira.

♦ **Zer laguntza mota ematen duzue?**

Ahalegintzen gara laguntzen eta motibatzen egin beharreko aldaketak egin eta zailtasunak egin ditzaten. Dena den, beraiek dira benetako protagonistak prozesu osoan. Gu ahalegintzen gara aukerak izan ditzaten. Saiatzen gara beren gaitasunak ikustarazten, gaitasun horiek landu eta indartu ditzaten. Gure helburua beti bat da: pertsona gisa ahalik eta modu osasuntsuenean gara daitezela.

♦ **Mendaron Kalek kudeatzen duen etxebizitza bat dago. Zein dira etxe horren ezaugarriak? Zein da Kalekako hezitzaileen egitekoa han?**

Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako aldi baterako egoitza da etxebizitza hori eta aukera ematen du han bizi direnek euren gaitasunak trebatzeko, behin prozesu hori bu-

“Haur eta gazteak apatigoago daude, ez daude lehen bezain aktibo”

“Beharrezko da aisialdiaz gozatzeko beste aukera batzuk ematea gazteei, erabiltzen dituztenak deabrutu gabe”

katuta bizimodu autonomoa egin ahal dezaten. Hau da, beharrezko baliabideak eta tresnak ematen zaizkie, gizarteratze-prozesu bat egin ahal izateko, gizarte eta hezkuntza-laguntzaren bidez. Era berean, eguneroko bizitza egoki antolatzen hastea eta euren parekoekin, helduekin eta inguruarekin harremanak izateko baliabideak modu egokian eskuratzera sustatzen da.

♦ **Zer erantzukizun dugu gizarte gisa? Nola ikusten ditugu bazterketa-arriskuan dauden gazteak eta zer eskaini behar diegu?**

Haurtzaroan, nerabezaroan eta pertsona helduetan, gizarteak prozesu inklusiboak sortu behar ditu, testuinguru guztietan integrazioa errazteko, ahalik eta bizimodu normalizatu eta osasuntsuena izan dezaten. Horretarako, bereziki garrantzitsua da prestakuntza eta lan-prozesuak zaintzea, kalitatezko lan-merkatuan sartzeko aukera izan dezaten.

Ikusi dugu erabiltzaile askok lehen baino gehiago erabiltzen dituztela gailu teknologikoak, lehen egiten zituzten beste jarduerak batzuk egiteari utzi diotelako. Eta beharrezkoa da denbora horiek berantolatzea eta kirol-jarduerak egitea, eta aisialdi eta denbora libre hezitzailea eskaintzea. Era berean, esan behar da pertsona batzuek ez dutela teknologia berriak erabiltzeko aukerarik edo gaitasunik, eta isolamendua areagotu egin dela pandemiak iraun duen bitartean. Igarri dugu teknologia berriak erabiltzeko trebatu behar ditugula.

♦ **Pandemiak dena aldatu du. Igarri duzue aldaketarik gazteen beharrezko ari garea? Eta haien jarrera eta portaeretan?**

Esan daiteke haur eta nerabeak apatikoago daudela, ez daudela lehen bezain aktibo. Bueltatu behar dira pandemia aurretik egiten zituzten gauzak

egitera eta berreskuratu behar dugu kalea, hezkuntza-espazio eta haur eta nerabeak harremantzeko espazio gisa. Pandemiak aldaketa ekarri du, eta orain, behar bada, premia handiagoa dago, baina bestela ere baze goen kalea berreskuratzeko beharra. Kontua da denborekin kalea deabrutu egin dela, zerbait negatibotzat hartzen dela, arrisku lekutat hartzen dela, etab. Kaleko eta ingurune irekiko balio hezitzailea, sozializatzailea eta pedagogikoa berreskuratu behar da. Berdinekin egotea, harremanak izaten ikastea, ingurunearekin eta naturarekin jolasten ikastea, beste pertsona eta adin batzuetakoekin batera bizitzea, galtzen eta irabazten ikastea, errespetatzen eta laguntzen ikastea, parte hartzea eta komunitatean herritar aktibo gisa egotea... hori dena ordenagailu batetik edo sakelako telefono batetik lortzea zaila da. Eta eskola orduz kanpoko jarduerekin agenda gainezka duenak ere zaila du hori dena lortzeko.

♦ **COVID-19ak eraginik izan al du zuen zerbitzuaren erabiltzaile direnen kopuruan? Lehen baino gehiago dira orain, ala ez?**

Osasun-alarmak iraun duen bitartean, jarraitu dugu lanean lehendik zabalik geneuzkan prozesuetan eta jarraitu dugu esku hartzen, baina egia da, baita ere, ezin izan dela arrisku egoera, babesgabetasun egoera edo bazterketa egoera berriak behatzeko eta hautemateko lanik egin.

♦ **Krisi garaian beti izaten da errudunak bilatzeko nahi bat, eta pandemia garaian ere hala izan da. Gazteen kriminalizazioa ikusi dute askok eta gaz-**

teek eurek ere salatu dute helduek egiten duten gauza bera kalean egiteagatik zigortu dituztela. Zer diozu?

Ulertu behar da zein eboluzio-uneetan dauden eta beren adineko lagunekin harremanetan jartzeko duten beharra. Behin bakarrik bizi den unea da, eta arauak haustea “ulergarria” da.

♦ **Helduen aisia-eredua kontsumora bideratuta dagoenean, zer eska da kieke gazteei? Zer eman beharko litzaieke? Zer besterik nabarmendu beharko genuke gazteei buruz?**

Beharrezkoa da aisialdiaz gozatzeko beste aukera batzuk ematea, erabiltzen dituztenak deabrutu gabe. Era berean, teknologia berriez egiten duten erabilerari beste eduki bat eman behar zaio, didaktikoagoa, eta ahalegina egin behar da bizimodu osasungarri eta hezigarria sustatzen duten bestelako jarduerak egiteari laga ez diezaioten.

♦ **Ikerketa Soziologikorako Espainiako Zentro Nazionalak (CIS) txosten bat argitaratu zuen otsailean, buruko osasunaren inguruan egindako inkestako datuekin. Esan dutenez, 18 eta 34 urte bitarteko gazteak izan dira pandemiak eragindako nekea gehien pairatu dutenak, emakumeekin eta klase apaleko pertsonekin batera. 18 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk adierazi dute antsietate-krisiak izan dituztela pandemia hasi zenetik, eta lautik bat oso triste edo deprimituta sentitzen da. Era berean, kolektibo horren % 18k beldur handia sentitu du. Nola sumatu dituzue gazteak?**

Pandemia-aldian, isolamendu-aldiak eragindako estres eta antsietate-faktoreei lotutako esku-hartze puntualak egin behar izan dira, baina, hala ere, ezin dugu esan bi zerbitzuen hartzaileen kopurua nabarmen handitu denik. Erabiltzaile gehienek egoera berrira egokitze gaitasuna erakutsi dute.

“Gure erabiltzaile gehienek egoera berrira egokitze gaitasuna erakutsi dute”

Ez izan eta bai uste, «mierda para usté(d)!»: Itxurakerietan ibiltzen denari esan izan zaio.

Kalegoen plazan egingo dute domekan Errosarioko Amaren ezpata-dantza



Arg.: Alex Berasategi

azko etenaren ostean, domekan egingo dute Errosarioko Amaren ezpata-dantza, 2009an ohitura berreskuratu zutenetik hamabigarrenegoz. Hori bai, pandemiara moldatu behar izan dute Haritz Euskal Dantzari Taldekoek ekitaldia, eta horregatik, ez dute prozesiorik egingo. Meza nagusiarekin hasiko da Errosarioko amaren ezpata-dantza, 11:30ean. Ohiko moduan ezpata-txikiak dantzatuko dute elizan, baina aurten, ezpata luzeak ere hartuko dute parte. Meza ostean, udaletxeko arkupeetan bilduko dira dantzariak, eta Kalegoen plazan dantzatuko dute ezpata-dantza. Dantzialdiaren amaieran hil berri den Abel Iriondo dantzalaguna omenduko dute.

Bi sari irabazi ditu Jasone Osorok aurtengo Juul kanpainan

Euskal Herriko ikastoletako ikasleek gogokoen dituzten liburu eta ilustratzaileak aukeratu dituzte Nafarroako Ikastolen Elkartek antolatzen dituen Juul Hauteskunde Literarioetan. Saritutako liburuen artean daude Jasone Osororen *Maddiren amona influencerra* (Alai) eta *Eskularru Beltzak* (Elkar). Lehen, *Go!azen* bildumako liburua da, eta 10 eta 12 arteko umeen artean boto gehien jaso ditu. *Eskularru Beltzak*, berriz, 12 eta 16 urte bitartekoak aukeratu dute.

Saritutako Osororen bi liburuak ilustratu dituzten ilustratzaileak ere saritu zituzten aurtengo Juul sarietan: *Maddiren amona influencerra* liburuaren ilustratzailea izan den Alai Zubimendi, eta *Eskularru beltzak* saileko ilustratzailea den Joseba Larratxe Josevisky. 23 ekitaldi ditu dagoeneko Juul hauteskunde literarioak, eta 17 aldiz saritu dute Osoro: "Asko maite dudan saria da, irakurle gazteen errekonozimendua eta kariñoa jasotzen ditudalako", esan du.



Euskarazko audioliburuak doan eskainiko ditu EITBk

EITBk Podcast plataforma ireki zuen apirilean, eta euskarazko audioliburuak gehitu dituzte orain plataforma horretara, debalde. Hasteko, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*, Lander Garrok itzulitako Albert Sanchez Piñolen *Larrua hotz* eta hainbat egileren *Lo potolo* izango dira entzungai. Hurrengo asteetan eskaintza handituz joango direla aurrera dute EITBtik. Literatura irakurria entzuteko aukera aski zabaldua dago inguruko hizkuntzetan, baina apenas zegoen euskararen presentziarik orain arte. Euskarak zuen gabezia jabetuta, proba egin nahi izan du EITBk, eta "gustu guztietarako literatura" entzungarria ekoizti du.

Audioliburuen grabazio prozeduraren estandarrak jarraituta, kalitatezko hainbat lan osatu dituztela jakitera eman dute, idazleen oniritziarekin. Are gehiago, kasu batean gainera idazleak berak jarri dio ahotsa bere nobelaren lehen audioliburu egokitzapenari, Uxue Alberdik, hain zuzen ere. "Berak daki, beste inork baino hobeto, Jenisjoplin eleberri ezagunean jarritako hitz bakoitzaren arrazoia". Horregatik berak ahotsa jartzea begi onez ikusi zuten On Time ekoiztetxeak eta EITBlabek, proiektuaren sustatzaileak. Alberdik Iñaki Beratxe aktore eta bikoizlariaren laguntza izan zuen lan horretan. Gazteenek ere izango dute zer entzun audioliburuaren atalean, bigarren fase batean *Go!azen* telesailaren bueltan ateratako lau liburuak eramango baititu EITBk audiora, Jasone Osoro idazle elgoibartarrak idatzitako liburuak, hain justu ere. Gainera, telesailako aktoreek jarriko diote istorio bakoitzari ahotsa.

Raimundo Argosek irabazi du Mendaroko margo lehiaketa

Raimundo Argos bilbotarrak irabazi zuen zapatuan Mendaron egin zuten margo lehiaketa eta 700 euroko txeketa jaso zuen saritzat. Bigarren saria, berriz, 500 euroko txeketa, Jose Miguel Arranz astrabuduarrarentzat izan zen. Bi accesit ere banatu zituzten: Juan Jose Altuna bergararrak eraman zuen bata, eta Jose Reyes leioarrak, bestea. Epaimahai teknikoa Aitor Sarasketa artista zarauztarrak, Bingen De Pedro artista bergararrak eta Aitor Etxeberria margolari eta eskulturgile mendaroarrak osatu zuten. Etxeberriak aipatu du ez zutela lan erraza izan koadrorik onenak aukeratzeko. "Maila oso handiko margolariak etorri zitzaizkigun. Urteik urtera zailtzen ari da gure lana". Bigarren lanik onena, margo lehiaketako lanak ikustera gerturatu zirenen artean zozkatu zuen zapatuan Udalak, eta Txomin Zulaikak eraman zuen etxera. Obra guztiekin erakusketa osatu dute orain, eta gaurtik hilaren 10era arteko epea egongo da ikusteko aukera, Lagun Betikoak lokalean.



Mister Leen & Black bikoak kontzertu partehartzailea emango du Tantikan datorren egunean

Javi Cantisano (*Mister Leen*) argentinarrak eta David Negro (*Black*) bizkaitarrak osatzen duten Mister Leen & Black taldeak kontzertua emango du urriaren 7an, Tantaka tabernan. Jam session estiloko emanaldia izango da, eta ikusleek eurekin batera joteko aukera izango dute. Kontzertuaren lehen zatian rock and roll estiloko hainbat abesti joko dituztela azaldu du, "Tequila edo Fito y Fitipaldis taldeen estilokoak", eta gero ikusleei emango diete oholtzara igotzeko aukera. Gitarra, perkusiorako instrumentuak eta beste hainbat tresna eramango dituzte, ikusleei lagatzeko. 19:00etan hasiko da emanaldia.



'Egunean Behin' lehiaketarako taldea sortu du Elgoibarko Izarrak

Astelehenean hasi zen Egunean Behin lehiaketako zortzigarren denboraldia, eta aurten, Elgoibarko Izarrak taldea sortu du. Nahi

duena sar daiteke taldean, E26E82 giltza erabilita. Herri-tarrengan euskara sustatzeaz gain, lehia osasuntsu bat sortu nahi du Elgoibarko Izarrak, eta denboraldi amaieran sari bat banatuko du lehen sailkatuarentzat, eta bigarren sari bat ere banatuko dute zozketa bidez. Lehiaketaren funtsa oso sinplea da: 10 galdera ahalik eta azkarren erantzutea. Aplikazioaren izenak dioen bezala, egunean behin bakarrik erantzun daitezke galderak eta astez aste eguneratzen da sailkapena.

'Aldenik Alden' egitasmoan izena emateko epea gaur zabaldu dute

Kalera irten ziren atzo *Aldenik Alden* egitasmoko arduradunak, ikasurteko lehen ekitaldia gazteekin batera adosteko. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehazteke zegoen

ekintza hori, baina arduradunek jakinarazi dute, gaur zabalduko dutela ekintza horretan izena emateko epea. Elgoibarko Izarraren Atxuxiamaika aisialdi taldeak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, euskararen erabilera sustatzeko martxan jarri zuen egitasmoa da *Aldenik Alden*, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara arteko ikasleei zuzenduta dago. Aurtengo berrikuntzen artean, Tiktok sare sozialean kontua (*Aldenik_Alden*) zabaldu dute *Aldenik Alden*-koek, eta parte hartzen dutenen artean herriko komertzioetan gatzatzeko bi bono zozkatuko dituzte.



Eskualdean errugbia sustatzeko batu dituzte indarrak Eibarko eta Mutrikuko errugbi taldeek

Eibar Rugby Taldea eta Mutriku Rugbyk elkarrekin jokatuko dute denboraldi homeetan 18, 12 eta 10 urtez azpiko mailetan. "Zerbait handia sortzea da asmoa, Debabarrenean elkarrekin lan



egingo duten talde-sare sendoa osatzea. Pauso hau bide luze baten hasiera da soilik", adierazi du Eibar Rugby Taldeko kirol-zuzendari Gaston Ibarburuk. Bi taldeen helburua da eskualdean errugbiak duen presentzia handitzea eta kirol hau sustatzea. "Eskualdeko haur eta gazte guztiei errugbia eta bere baliok ezagutzeko eta praktikatzeko aukera ematea da helburua, eta errugbia eskualdeko kirol erreferente bihurtzea", dio Paulo Coutok, bateratzearen arduradunetako batek. Alex Barrenetxea, Mutriku Rugby Elkarteko lehendakaria, izan da proiektu honetan gehien sinistu duen pertsonetako bat eta, bere berbetan, Debabarrenean errugbia gehiago ezagutaraztea da helburua. "Hedatzeko lan handia dugu egiteko. Ilusio handia dugu eta uste dugu oso aberasgarria izango dela denontzako".

Urriaren 4an hasiko dira Eskola Kiroleko saioak

Martxan da 2021-2022 ikasturteko Eskola Kiroleko programa. Dagoeneko itxita dago izena emateko epea eta urriaren 4an egingo dituzte lehen saioak. Eusko Jaurlaritzak normaltasunez hasteko aukera eman dien arren, pandemian jarraitzen



dugula eta segurtasun neurriak betetzen jarraitzea ezinbestekoa izango dela zehaztu dute eskola kiroleko arduradunek. Hala, Eskola kiroleko kontseiluek zenbait neurri hartzea erabaki zuen, besteak beste, aurten astean bi saio eskaintzea (aurreko ikasturtean saio bakarra egiten zuten asteko). Aurreko ikasturteko programa mantenduko dute, eta momentuz ez da lehiaketarik egongo asteburuetan. Gela egonkorra mantentzeko saiakera egingo dute, "nahiz eta malgutasuna egongo den maila bereko haurrak elkartzeko, taldeak antolatzean sor daitezkeen oztopoei aurre egiteko". Ekintzak osasun neurriak hartuta antolatuko dituzte: musukoa erabiliz eta kontaktuak ahalik eta gehien saihestuz. "Baldintza eta protokolo guztiak betez, kalitatezko zerbitzu bat eskaintzen saiatuko gara", adierazi dute.



Lizarpera irteera, domekan

Urriarekin batera, mendi irteerak antolatzeari ekin dio Mendaroko Arno Guraso Elkarteak. Igan-derako, urriak 3, proposatu dute lehenengo irteera: Lizarpera. Zortzi Bihurguneen Bidetik igoko dira Lizarperaino, Erentzatik bueltan, eta handik errepidez jaitziko dira gero. Lau bat orduan osatuko dute ibilbidea eta bazkaltzeko etxeratuko dira. Mendiko arropa eta oinetakoak, eta hamaiketako eramateko eskatu dute antolatzaileek. 9:30ean abiatuko dira Herriko Enparantzatik, eta haurrek gurasoek lagunduta egin beharko dute bidea. Izena emateko arnokiroalak@gmail.com helbidera idatzi behar da, eta joango direnen izen-abizenak eta harremantarako telefono zenbaki bat zehazteko eskatu dute Arno Guraso Elkartetik, bai eta haurra zein mailatan dabilen ere.

Palentziako mendietara irteera antolatu du Morkaikok

Urriaren 9tik 12ra Palentziako Mendietara egingo duten mendi irteeraren berri eman du Morkaikok. Lau egunetan hainbat mendi igoko dituzte: Valdecebollas (2142 m.), Curavacas (2524 m.) edo Pico de la Celada (1560 m.). Cervera de Pisuerga herriko Peñalabra hotelean hartuko dute ostatu. 25 lagunentzako lekua egongo da irteera honetan, eta derrigorrezkoa izango da federatua egotea. Online eman daiteke izena, morkaiko@morkaiko.eus helbidera mezua bidalitz edo aurrez aurre, Morkaikoren egoitzan, eguaztetenan, 19:00etatik 20:15era.



382 lagunek eman dute izena Elgoibarren igeriketa ikastaroetan eta ur jardueratan, pandemia aurreko datuak hobetuz

Udal Kirol Patronatuko arduradunek azaldu dutenez, izena eman duten guztiek, 382 lagunek, parte hartu ahal izango dute eskaini dituzten ikastaroetan, 55 taldetan banatuta. Pandemia aurreko zenbakiak gainditu direla jakinarazi dute kirol patronatuko arduradunek, 2019an hilerio 342 pertsonen parte hartzen baitzuten igeriketa ikastaroetan. Olaizaga kiroldegiko igerileku berria irailaren 1ean ireki izanak izan du eragina, igeriketa ikastaroetarako eta bestelako ur-jardueretarako bi igerileku handiak (zaharra eta berria) eta igerileku txikia erabiltzen ari baitira. Jarduera berriak ere eskaini ditu Patronatuak ikasturte hasiera honetan: jaioberrientzako saiokak, lesioak errekuiperatzeko uretako jarduerak eta igeriketa egokitua. Gainontzeko taldeak haurrentzako hasiera mailak (sardina txikiak, sardinak, korrokoiak, izurdeak eta marrazoak), igeriketa eskolak, masterrak eta helduentzako hasierako eta hobekuntzako mailak osatzen dituzte.



Haundik lehen garaipena lortu zuen zapatuan Mintxetan eta emakumezkoen taldeak galdu egin zuen



Club Deportivo Elgoibarko talde nagusiek, gizonetako eta emakumezkoek, Mintxetan jokatu zituzten ligako partidak aurreko asteburuan. Haundik Zumarraga eta Urretxuko Urola K.E. izan zuen aurkari eta Pablo Turrillasen mutilek 3-2 irabazi zuten, ligako lehen garaipena eskuratuz. Lehen bi jardunaldietan lortutako bi berdinketekin bost puntu dituzte sailkapenean, eta zazpigarren postuan daude. Emakumeen talde nagusiak ere Mintxetan jokatu zuen denboraldiko ligako etxeko lehen partida. Elgoibartarrek 2-3 galdu zuten Goierri Gorri taldearen aurka. Gainerako taldeei dagokionez, lehen mailako jubenilen taldeak Aretxabaletaren aurka lortu zuen garaipen argia nabarmendu behar da, 10-1 irabazi baitzuten. Emaizta guztiak ondoko zutabearen ikus ditzakezue.

Emaiztak

FUTBOLA

Haundi 3 – Urola 2 (Ohorezko erregional maila.)
 Elgoibar 2 – Goierri Gorri 3 (Erregional preferentea, emakumezkoak.)
 Ikasberri 2 – Elgoibar 7 (Erregionala, gizonetakoak)
 Ilintxa 2 – Elgoibar 3 (Ohorezko jubenilak)
 Elgoibar 10 – Aretxabaleta 1 (1. mailako jubenilak)
 Elgoibar 4 – Aretxabaleta 0 (Ohorezko Kad.)
 Urola 3 – Elgoibar 2 (Kadeteak 1. maila)
 Amaiak Bat 1 – Elgoibar 0 (Kadeteak, neskek)

ESKUBALOIA

Orio Eskubaloia 28 – CIMDE Elgoibar 21 (Jub. nesk. Open Cup Euskadi)
 Ordizia 275 – Astigarraga GYS Sport 19 (Kad. nesk. Gipuzkoako txap.)
 Arrasate 26 – Deuko Izarra Elg. 16 (Jub. mut. Gipuzkoako txap.)
 Amenabar Zarautz 27 – Urkunde Elg. 14 (Kad. mut. Gipuzkoako txap.)
 Bankoa Elg. 29 – Bergara 9 (Jub. nesk. Gipuzkoako txap.)
 BM Corazonistas Vitoria 28 – Alcorta F.G. 25 (Senior giz. Open Cup Euskadi)
 Gaurve Asesores 15 – Uneatlantico Unicaja
 Banco 29 (Sen. emak. Zilarrezko Oho. Maila)
 Salento Gelati Elg. 22 – Bera Bera 21 (Senior giz. Open Cup Euskadi)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8
 10:00 Elgoibar – Burumendi (Infantil Txiki)
 12:00 Elgoibar – Mutriku (Kadeteak, nesk.)
 16:00 Elgoibar – Bergara (Oho. jub.)
 Domekia, 9
 16:00 Elgoibar – Bergara (Erregionala)
ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)
 Zapatua, 2
 10:00 Urkunde Elg. – Arrate (Kad. mut)
 17:00 Deuko Izarra – Legazpi (Jub. mut.)
 19:00 Pizzeria Salento – Ormaiztegi (Sen. giz.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko eta atarrietako garbiketak ere egiten ditut. Sukaldari laguntzaile moduan ere lan egingo nuke.
☎ 602 047 812

Lan bila nabil. Etxeetan garbiketa lanak egiten esperientzia daukat.
☎ 633 294 339 (Cinthya)

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan edo etxeko langile moduan.
☎ 631 425 686 (Laura)

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka.
☎ 631 229 408

Orduka lan egiteko prest nago.
☎ 631 887 341 (Maribel)

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.
☎ 612 270 162

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko nituzke.
☎ 640 742 618

Lan bila nabil. Soldadura ikasketak eginda dauzkat.
☎ 632 508 182

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
☎ 612 462 120

Eskaintzak

Jatetxe batek sukaldea garbitzeko langilea eta asteburuetarako zerbitzaria behar ditu.
☎ 659 539 861

Goizetan 6 urteko bi ume Herri Eskolara eramateko pertsona behar da.
☎ 634 599 864

Asteburu eta jai egunetan jatetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar da.
☎ 659 539 861

BESTELAKOAK.....

Eskalatze sokak hartuko genituzke Elgoibarko Izarran. 943 74 16 26 / atxutxiamai@elgoibarkoizarra.eus

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretrotua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretrotua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua

Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta diru-laguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeok aurreratu genuen. Orain, diru-laguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.

Lehenengo eta behin, azalpen bat. Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan diru-laguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jabeekideen batzarren onespena beharko da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du bere kabuz dirua itzultzeko eskatzeko eskubiderik. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jabeekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbaitetan inbertitzea. Beraz, une horretan etxejabea denak ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko betebeharra dauka, baina onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den unean bertan egiten ditu bere etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.

AHOLKUA: Izatekoan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina komunitatea ez da ezerean erantzule izango kasu horretan. Komunitateak etxejabe berriari eman beharko diolako dirua.



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak)
baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo
📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak gure pirulit-
ñari! 3 urte haundi!
Muxuak etxeko guztien
partez, **Jare.**



Zorionak, **Garazi,**
asteartean 6 urtetxo
egin zenituelako. Etxe-
koen partez, patxo
handi bat.



Zorionak, **Ion!** Gaur
8 urte irribarretsu bete
dituzu! Etxeko guztion,
eta, bereziki, Zeldaren
partez, muxu handi
bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Kaiku, Debabarreneko baserritar familien esnea.

Kaiku proiektua abeltzain familiek osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Horri esker, abeltzain familiek beren jarduera garatzen jarrai dezakete, maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektore honetan. Aktibitate honek landa-inguruneke lanpostuen sorrera eta ekonomia zirkularra sustatzen ditu eta gazteek hirietara lan bila joateko joera ere murrizten du, herriak bizirik mantenduz.

Kaikuko abeltzain-familia horietako bat Itziarke aita-
semeak dira, Santi eta Iñaki Arakistain.

Abeltzaintzan tradizioa duen familiatik datoz, eta ahalegin handia egin dute beren baserrian teknologia integratzeko, jarduera profesionalizatu eta animalien inguzatea hobetze aldera. Aurrerapenetako bat jezteko robota izan da, behi bakoitza eskariaren arabera jezteko aukera ematen duena, horixe baita animaliak tratatzeko modu naturalena. Gainera, teknologiak aukera ematen die zehatz jakiteko zein den behi bakoitzaren osasun-egoera: "Etorkizunera begira, teknologia eta aurrerakuntzen bidea jarraitzea erabaki dugu. Semeak erreleboa egiteko ere, erakargarriagoa egiten du honek eguneroko lana", dio Santik.

Kalitate eta zapore goreneko esnea lortzeko behien ongizatea bermatzeaz gain, elikadura ere %100 naturala izatea ziurtatzen dute. Behien elikaduraren %70 beraiek baserrian produzitutakoa da, Itziar inguruko larreetan jasotako belarrez eta zerealez osatua.

Santi eta Iñakirena bezalako abeltzain familien lanari esker, Kaiku Km0 ekoizpen arduratsuko esnea lortzen da: Debabarrenean bizi diren abeltzain familiek ekoizitakoa, uste baino askoz hurbilagokoa. Kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku Km0 ekoizpen jasangarriko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAIKUKO**
BASERRITAR FAMILIAK eta
zein **HURBIL** gauden zugandik

IRABAZI URTEBETEKO
ESNEA DOAN.

b **BARREN** **943 743 704**
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. azk. - 20870 ELGOIBAR

1 BARIKUA

10:00-13:00 / 17:00-20:00

Kaleko stock feria. Txankakuako establezimenduen kanpokaldean jarriko dituzte postuak.

2 ZAPATUA

10:00-13:00 / 17:00-20:00

Kaleko stock feria. Txankakuako establezimenduen kanpokaldean jarriko dituzte postuak.

3 DOMEKA

9:30 Lizarpera mendi irteera, 8 bidegurutzeen bidetik. Mendaro ikastolako Arno Guraso Ekarteak antolatuta. Irteera, plazatik. Izena eman behar da: arnokiolak@gmail.com

11:30 Errosarioko Amaren ezpata dantza. Meza nagusian, eta meza ostean, Kalegoen plazan. Ez dute prozesiorik egingo. Antolatzailea: Haritz EDT.

6 EGUAZTENA

18:00 Ikastaroa: 'Maitatu eta zaindu', LILAn (King-Kong eraikinean). Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Izena emateko: Pitxintxun_edo_haizeataldea@gmail.com


19:00 Ate irekien jardunaldia, Elgoibarko Gaztelekuan. Izena eman behar da: elgoibar.eus

7 EGUENA

18:00 Hitzaldia: 'Gordofobia'. Hizlaria: Irati Garcia. LILAn (King Kong eraikinean). Ez dago izena eman beharrik.

19:00 Kontzertua: 'Mister Leen and Black'. Pintxo rock saioa, Tantaka tabernan. Doan.

Zinea Herriko Antzokian



'Nora'

1 barikua: 21:00
2 zapatua: 19:00 / 22:15
3 domeka: 19:00
4 astelehena: 21:00

'Peter rabbit 2: a la fuga'

3 domeka: 16:30

'Summer soul'

(Ongarri zinekluba)
6 eguaztena: 21:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

1 BARIKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



Manuel Ramirez Diez

2021eko martxoaren 31n hil zen, 84 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



Jose Mari Barrutia Echaniz

2021eko uztailaren 26an hil zen, 75 urte zituela.

***Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.
Beti elgoibartarra.***

Familiakoak



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

**Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

Eskertzak eta urteumenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZATEA

egoluz

ELEKTRIZATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 behe - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albituri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

arroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Arroztegia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA.S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**

